



Norbere oinordetza antolatzeke ahalmenen ordezkari-tza Euskal Herriko Zuzenbide Zibilean

(Delegation of powers to organise ones own inheritance in Civil Law in the Basque Country)



BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maite

Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel de Lardizabal, 2
20018 Donostia

BIBLID [1137-1951 (2008), 17; 5-18]

Sarrera eguna: 2008.02.13
Onarpen eguna: 2008.02.25

Heriotz ondorengorako norbere ondasun eta eskubideak antolatzeke testamentuaren egokitasuna espainiako ordenamendu guztiek onartu arren, honen inguruan bakoitzak berezitasunak aurkezten ditu, berau desadostasun iturru bihurtuz. Adierazitakoaren adibide izango da testamentugileak hirugarren bat izendatzea azken honek lehenengoaren jaraunslea izendatzeke ete bere ondasunak banatzeko asmoz. Espainiako Kode Zibila ez da aukera honen Aldekoa, baina bai lurraldeko gainarako zuzenbide zibilak, beraien artean Euskal Herrikoa.

Giltza-Hitzak:

Lurraldekortasuna. Oinordetza. Testamentua. Hirugarrena. Ordezkaritza.

Zos ordenamientos civiles españoles consideran el testamento instrumento adecuado para organizar los bienes y los derechos para después del fallecimiento. Esta concepción puede sufrir matizaciones, como sucede cuando el testador nombra a un tercero como sujeto habilitado para designar sucesor y distribuir los bienes del primero. Las legislaciones territoriales admiten esta opción, incluso la vasca, en contra del criterio del Código Civil.

Palabras Clave:

Territorialidad. Sucesión. Testamento. Tercero. Delegación.

Zes ordonnances civiles espagnoles considèrent le testament comme un instrument adéquat pour organiser les biens et les droits après le décès. Cette conception peut souffrir des nuances, comme il arrive lorsque le testeur nomme un tiers pour être habilité à désigner un successeur et distribuer les biens du premier. Les législations territoriales admettent cette option, y compris la basque, contre le critère du Code Civil.

Mots Clés:

Fonctionnaires. Liberté syndicale. Négociation collective.



1. **Sarrera.** 1.1. Kontzeptua. 1.2. Bilakaera historikoa. 2. **Oinordetza ahalmenen ordezkaritza espainiar ordenamenduetan zehar:** 2.1. Kode zibilean. 2.2. Espainiako zuzenbide zibilean. 3. **Oinordetza ahalmenen ordezkaritza Euskal Herriko Zuzenbide Zibilean:** 3.1. Izena. 3.2. Subjektuak. 3.3. Elementu formalak. 3.4. Ahalmenak. 3.5. Administrazioa. 3.6. Epealdia. 3.7. Iraungipena. 4. **Etorkizunari begira.** 5. **Bibliografia.**

1. Sarrera

1.1. Kontzeptua

Espainiar estatuko Kode Zibilak testamentua izaera pertsonalista duen tresna moduan aurkezten du, berau izanik honen ezaugarri nagusienetakoa. Hau dela eta, oinordetzaren antolaketa norbere borondatea jarraituz burutzen den ekintza aldebakarrekoa dela esan ohi da, non, gizabanako bakoitzak bere ondasun eta eskubideen etorkizuna erabakitzen duen. Hainbat kasutan ordea, baieztapen hau ez da errespetatzen eta posible izaten da testamentugilea ez den hirugarrenaren partehartzea bultzatzea oinordetzaren egituraketa egokiago bat lortzeko asmoz. Aldiz, aipaturiko ahalmenen ordezkaritza testamentugileak eskatu beharrekoa izango da ageriko modu batean, bide batez, izendaturiko hirugarrenak “oinordetzaren antolaketan protagonismo handia”¹ lortuz. Hala ere, printzipio pertsonalistaren haustura ez da beti maila berean ematen, zeren eta posible da izendatzaileak oinordetzaren egituraketarako ahalmenak erabat besterentzea, edo soilik zeregin konkretu batzuk².

Izendapen hauen bidez lortu nahi diren helburuak desberdinak izan daitezke, adibidez, espero ez den heriotza dela eta pertsona bat jaraunsle izendatu gabe hiltzea ekiditea edo familia barnean ondarea bateraturik mantentzea. Funtzio hauek ikusirik praktikotasun argia duen errealitate baten aurrean gaudela dirudien arren, espainiar ordenamendu zibil guztiek ez dute onartzen hirugarrenen partehartze hau. Halaber, foru zuzenbideek baimentzen duten bitartean (legeen arteko ezberdintasun nabariekin), Kode Zibilak tresna hau ez du aurrezagutzen espresuki bere

lerroetan. Aipaturiko azken debeku honen isla gorputz juridiko berdineko 670. artikuluan aurkitzen da, zeren *testamentua nahitaez norberak burutu beharreko egintza* moduan aurkezten du³.

Doktrinaren gehiengoa 670 artikuluan errotzen den debeku honen alde aurkezten da arrazoi desberdinak oinarritzat hartuz: oinordetza borondatearen besteren-ezintasuna honek duen izaera pertsonala dela eta, ordezkatzeko den boterearen erabilpen desegokia egitea edo kausatzailearen borondatea ez errespetatzea. Aldiz, beste hainbat autore, zuzenbide autonomikoen oihartzunpean kokatzen direnak, ahalmenen eskualdaketa honen aldeko jarrera erakusten dute. Azken baieztapen honen ardatza askatasun zibilaren printzipio orokorra da, baina honi beste hainbat arrazoi gehitu ahal dira: erabakia berandutzeak berau irizpide egokiagoen menpe hartzea ahalbidera dezake, edo ezkontidearen lekua indartzen da. Edozein kasutan, ahalmenen ordezkatzeko debekua emaniko boterearen erabilera desegoki batean arrazoitzea, gehiegizko neurria kontsideratu ahal da baliagarria den tresna bat baliorik gabe uzteko⁴.

Halaber, aipaturiko doktrinen jarrera ikusirik, ulertu daiteke aurrez aurre ditugula Kode Zibilaren debekua eta gainerako espainiar ordenamendu zibil baimena, nahiz eta azken hauek bakoitzak bere berezitasunak mantendu.

Kode Zibilak mantentzen duen kontrako jarrera hau legean modu argian aurkezten dela dirudien arren, praktikan egoera hau ez da hain zehatza. Hainbat artikulua daude Kodean, non, testamentuaren norbanako izaera zalantzan jartzen duten. Honen adibide dira 671 artikulua, bertan baimentzen baita norbait izendatzea aurretik ezarritako onuradun posibleen taldearen murriztapena egiteko asmoz. Baita ere, eztabaidagarriak dira 775 eta 776 artikuluetan arautzen diren ordezkapen pupilarra eta ejemplarra. Ildo berean, 831 artikulua baimentzen du hobekuntzak egiteko ahalmenen ordezkatzeko eta 1057 artikulua aukera ematen du banaketa ahalmenak hirugarrenen esku uztea. Azkenik, Kode Zibiletik kanpo, 49/1981 legea, abenduak 24koa, familiarteko nekazal utsiapen eta nekazari gazteen estatutuan bere 23 eta 26 artikuluen artean komisario bidezko testamentua baimentzen zen espresuki, gaur egun, ordea, aukera hau indargabetua dago.

1. ASUA GONZALEZ, Clara Isabel. *Designación de sucesor a través de tercero*, Madril: Tecnos, 1992; 13. or.

2. ASUA GONZALEZ, Clara Isabel. *Designación de...*, cit.; 19-20 orr.

3. Kode Zibileko 670 artikulua horrela jarraitzen du: *Horren eraketa, oso-osorik edo zati batez, ezin da inoren erabakimenaren menpe utzi, ezta komisario edo mandatariaren bidez egin ere. Era berean, ezin da inoren erabakimenaren menpe utzi jaraunsle edo legatu-hartzaileen izendapenaren iraupena, eta, testamentugileak jaraunsleak edo legatu-hartzaileak izen abizenez izendatuak badira, ezta horiei dagozkien zatiak izendatzeko ardura ere.*

4. CELAYA IBARRA, Adrian. “El testamento por comisario”. In: *Anuario de Derecho civil*, 25. bolumena, 3. zenbakia, Madril: Justizia Ministerioa, 1972; 745-747 orr.

Aipaturiko Kode Zibileko artikuluko guzti hauek testamentuari egozten zaion izaera nagusienetakoa, norbanakotasuna, zalantzapean jartzen dute; hala ere, hauen gain badaude Espainiako ordenamenduaren barne beste hainbat errealitate, non, antzekotasun bat mantentzen duten oinordetza ahalmenen ordezkatzearekin. Adierazpen honen adibide dira albazea, kontulari-banatzaille eta administratzaileen karguak, zeren beraiena ez den oinordetza baten inguruan hainbat erabaki praktikoa hartu behar dituzten. Kasu honetan ordea, burutu beharreko funtzioak jada irekia dagoen oinordetza baten garapen egokia burutzeraz mugatzen da eta testamentugilearen borondatea zehaztea dute helburu. Bestalde, “konfiantzazko oinordetza” ordezkartzarekin erlazionatuta dagoen instituzioa da baita ere, Nafarroako Foru Berriko 289 eta 295 legeetan eta Kataluniako oinordetza kodeko 150 eta 153 artikuluetan arautzen delarik⁵. Kasu honetan ere testamentugileak zenbait funtzio ahalbideratzen dizkio hirugarren bati, baina hau sekretupean egiten da. Esan daiteke, erlazio honetan besterentzen diren ahalmenak mugatuagoak direla fiduziapeko erlazioetan baino⁶.

Guzti hau esanik, oinordetza ahalmenaren ordezkatzeari hasiera batean dirudiena baino zabalagoa dela esan daiteke. Printzipioz, zenbait ordenamendu zibil autonomikoetan soilik erregulatzen da, baina praktikak erakusten digu ordezkapen hauek Espainia osoan aplikagarri den ordenamenduan ere aurkitu ditzakegula. Halaber, lurralde bakoitzak bere xehetasun propioak mantentzen ditu, beraz, guztiak oinordetza ahalmenen ordezkatzeari edo besterentzeari onartzen dute, baina norbere irizpideak errespetatzen dira lurralde bakoitzeko lege testuetan.

1.2. Bilakaera historikoa

Benetan zaila da jatorri amankomun bat aurkeztea Espainian dauden oinordetza

ordezkaritza tresna guztientzat, hauen aniztasuna dela eta ordenamendu zibil ezberdinetan zehar.

Historian atzera eginez, instituzio honen jatorria erromatar zuzenbidean finkatzea ezinezkoa da, zeren garai horretan espresuki debekatua zegoen hirugarrenen eskuetan uztea norbere oinordetzaren inguruko erabakien antolaketa. Baieztapen honen isla Digestoko 28. Liburuko 5. Tituluko 32. Legean jasotzen da⁷.

Jatorri erromatarra ezeztatu ondoren, beharrezkoa izango da beste iturriak aztertzea. Hainbat autorek kontsideratu izan dute germaniar zuzenbideko *Treuhänder*etik datorrela gaur egun ezagutzen dugun oinordetza ahalmenen ordezkatzeari. Beste batzuen iritziz, ordea, tresna honen hasiera Inocencio IIIaren Dekretaletako batean kokatzen da, hain zuzen ere Altisidoro obispoaren galdera bat argitzeko asmoz emanikoa⁸.

Antzinako jatorriaren inguruan dauden zalantzen aurrean, errazagoa da erroko espainiar zuzenbidearen bilakaeran bertan finkatzea. Foru Errealeko III Liburuko V Tituluko 7. Legean⁹ aurreikusten zen pertsona bat izendatzeko aukera honek hirugarren baten izenean egin zezan testamentua; ordezkapen honen neurria oso zabala zenez, testamentugilearen erabateko ordezkapena ematea posiblea zen.

Denboran aurrerago, Alfonso X erregeak Zazpi Partidak eman zituen; kasu honetan norabide aldaketa bat egon zen zeren erromatar irizpideak jarraituz, edozein modutako ordezkapenak debekatu ziren oinordetzen barnean. Hain zuzen ere, VI Partidako III Tituluko 11. Legeak debeku hau jasotzen zuen¹⁰. Hala ere, esan beharra dago Partidak ez zirela aplikagarriak izan eremu honen barne, zeren nahiz eta Foru Errealen ondorengoak izan, Partidak indarrean zeuden berezko zuzenbide gaztelarra ez zegoen lekuetan¹¹.

5. Lan benetan interesgarria burutu du CAMARA LAPUENTE, Sergio. *La fiducia sucesoria secreta*, Madril: Dykinson-Nafarroako unibertsitatea, 1996. Instituzio honen azterketa egiten du modu sakon batean beste antzeko batzuen aurkezpenaz gain.
6. DE LA CAMARA ALVAREZ, Manuel. *Compendio de Derecho sucesorio*, 2. edizioa, Madril: La Ley-actualidad, 1999; 401 or. Autore honek dio “el heredero de confianza está facultado para tomar posesión de la herencia, hacerse cargo de la misma y disponer de ella en la medida necesaria para dar a los bienes hereditarios el destino que reservadamente les hubiere encomendado confidencialmente el testador”.
7. Digestoko 28. Liburuko 5. Tituluko 32. legea: “illa institutio, quos Titius voluerit ideo vitiosa est, quod alieno arbitrio permissa est, nam satis constanter vetares decreverunt, testamentorum iura ipsa per se firma esse oportere, non ex alieno arbitrio pendere”.
8. Altisidoro obispoak baimena zuen testamentua egin gabe hiltzen ziren pertsonen ondasunen gainean erabakiak hartzeko, eta galdetzen zuen ea posible zen beste hirugarren baten borondatepean uztea erabaki hauek. CELAYA IBARRA, Adrián. *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales. Compilación de Vizcaya y Alava*, XXVI tomoa, Madril: Edersa, 1978; 166 or.
9. III Liburuko V Tituluko 7. Legea: “Si alguno no quisiere, o no pudiere ordenar por sí la manda que ficiere de sus cosas, e diere su poder a otro, que el que la ordene, é dé, é la dé en aquellos lugares onde él tuviere por bien, puédelo facer: é lo que él ordenare ó diere, vala, aso como si lo ordenase aquel que dió el poder”.
10. VI Partidako III Tituluko 11. Legea: “Como el testador debe nombrar por sí mismo a aquel que establece por heredero et non ponerlo en albedrio dotri: declarar debe et nombrar el facedor del testamento por sí mismo el nombre de aquel que establece por heredero; ça si otorgare poder a otro que lo estableciese en su lugar non valdria(...) et esto es porque el establecimiento del heredero et de las mandas non debe ser puesto el albedrio de otro”.
11. RIVAS MARTINEZ, Juan Jose. *Derecho de sucesiones. Común y foral*, I. tomoa, 3. edizioa, Madril: Dykinson, 2005; 314 or.

Aipaturiko egoerak sorturiko ezegonkortasuna dela medio, Errege Katolikoan garaian Toroko Legeak eman ziren 1505. urtean. Testu honek berriz ere oinordetza ordezkapenen aldeko jarrera bat finkatu zuen, baina erabat mugatua Foru Errealean jasotzen zen egoerarekin alderatuz gero. Toroko Legeko 31. artikulutik 39. artikulura jasotzen ziren eremu honetan errespetatu beharreko murriztapenak¹², hauen bidez ia ezinezkoa egiten zelarik praktikan instituzio honen aplikazioa bi motatako ordezkariak onartu arren, lehenengo batek zorrak ordaintzeko ahalmena soilik ordezkatzeko baimentzen zuen eta bigarren kasuan testamentugilearen borondatea errespetatu beharko zen, hots, honek ez zuen eremu oso zabala jarduteko orduan erregulazio hau zela medio¹³.

Aipaturiko mugapenen bidez ordezkapen hauen erabilera praktikoa erabat gutxitu zen lurralde amankomunean, gainera doktrinak jarrera ezezkor bat bereganatuz. Aldiz, ez da hau foru zuzenbideetan ikusi daitekeen errealitatea; hauetan betidanik modu baikor batean jardun izan da oinordetza eremuko ordezkapenen inguruan, gaur egun bide berdina mantenduz.

2. Oinordetza ahalmenen ordezkari-tza espainiar ordenamenduetan zehar

Euskal Herriko zuzenbideak irizpide independenteak aurkezten ditu probintzia bakoitzeko oinordetza ahalmenen ordezkatzearen inguruan. Hauek ezagutzea burutzen ari garen lanaren ardatz nagusia izan arren, beharrezkoa da gainerako espainiar ordenamenduek eremu hau nola aztertzen duten jakitea. Helburu hau dela medio, aipamen labur bat egingo dugu gai honen inguruan esaten denari buruz Kode Zibila

eta espainiar lurralde ezberdinetan indarrean dauden gainerako lege zibiletan.

2.1. Kode zibilean

Lehenago aipatu dugu Kode Zibilak testamentuari egozten dion norbanakotasun izaera dela eta printzipioz ez dela baimentzen oinordetza eremuan ordezkaterik burutzea espainiar estatuan. Ideia hau ordea, kode berdineko 831 artikulua aurkaratzen du¹⁴. 830 artikulua hobekuntzak besterentzea debekatu ondoren, hurrengo artikulua, hots, aukera hau ahalbideratzen du ezkontideen artean, eta baita ere, seigarren lerroaldea kontutan hartuta, izatezko bikoteen artean¹⁵. Ulertzen da erlazio hauetakoren bat indarrean egon behar dela testamentugilearen heriotza unean, zeren instituzio hau konfiantzan oinarritzen da, beraz, konfiantza hau errotzen duen erlazioa iraungitzen bada kargua ere desagertu egingo da¹⁶. Testamentugilea eta berak izendatutakoaren arteko aipaturiko erlazioaz gain, beharrezkoa izango da lehenengoak onuradunarekin harreman zehatza izatea baita ere. Garai batean seme-alaba amankomunak soilik izendatu ahal ziren kargu honetarako¹⁷; gaur egun eremu hau zabaldu egin da 2003. urteko erreformaren bidez, halaber, seme alabez gain, ezkontide edo izatezko bikoteak amankomunean dituzten gainerako ondorengo ahaideek ere leku hau bereganatu ahal dute arazorik gabe.

Ordezkari moduan jardungo duenaren izendapena testamentuaren bidez egin beharko da. Aldiz, ondoren burutu beharreko funtzioen exekuziorako tresnak modu zabalago batean aurkezten ditu legegileak, zeren edozein ekintza *inter vivos* edo *mortis causa*¹⁸ baliagarria izango da¹⁹.

12. Agian legerik argiena aipatuen arteko lehenengoa zen, 31. legea: "Porque muchas veces acaesce, que algunos, porque no pueden, o porque no quieren hacer sus testamentos, dan poder a otros que los fagan por ellos, y los tales comisarios facen muchos fraudes y engaños com los tales poderes, estendiendose a mas de la voluntad de aquellos que se las dan; por evitar los dichos daños, ordenamos y mandamos que...".
13. OSSORIO SERRANO, Juan Manuel. "Comentarios a los artículos 670 y 671". In: *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, IX. tomoa, 1-A bolumenta, Artículos 657-693 del Código Civil, Manuel ALBADALEJOK zuzendua, Madril: Edersa, 1990; 117 or.
14. Hainbat eremutan planteatzen da ea Kode Zibileko 831. artikulua bere jatorria zuzenbide foraletan duen, modu honetan onartzen delarik Espainia guztirako errealitate bat gainerako ordenamendu espainiarrek onartzen dutena. Gai hau aztertzen du LOPEZ BELTRAN DE HEREDIA, Carmen. "El artículo 831 del Código Civil". In: *Anuario de Derecho civil*, 58. tomoa, 3. zenbakia, Madril: Justizia Ministerioa, 2005; 1120-1121 orr, bertan jasotzen da hainbat autorek defendatzen dutela zuzenbide foralen eragina, baina beste hainbatek 831. artikulua eremu autonomoa defendatzen dute.
15. Gaur egun daukagun 831. artikulua idazpena ez da betidanik indarrean egon dena. Hainbat erreforma jasan ditu artikulua honek 11/1981 legea, maiatzak 13koa eta 41/2003 legea, azaroak 18ko legeen bidez.
16. BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, Rodrigo. *Comentarios al Código Civil*, 2. edizioa, Nafarroa: Thomson-Aranzadi, 2006; 1020 or.
17. Hau doktrinan oso eztabaidatua izan zen, zeren gehiengoak ulertzen zuen seme-alabez gain beste ondorengoak ere onuradun moduan izendatu ahalko zirela. HERRADA ROMERO, Rafael Ignacio. "Algunas consideraciones sobre el plazo ex artículo 831 del Código Civil". In: *Revista de Derecho Privado*, 84. zenbakia, Madril: Justizia Ministerioa, 2000-II; 853 or; BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, Rodrigo: *Comentarios al...*, cit.; 1021 or; LOPEZ BELTRAN DE HEREDIA, Carmen: "El artículo...", cit.; 1129 or.
18. Izendatuaren testamentua erabili ahal da funtzio hau betetzeko edo independente bat helburu hau soilik jasotzen duena.
19. Nahiz eta aipamen hau erabat orokorra izan, modu positibo batean baloratu behar da zeren 2003 urte aurretik ez zen erregulatzen eremu hau. VALLET DE GOYTISOLO, Juan. *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, Artículos 806-857 del Código Civil, Manuel ALBADALEJOK zuzendua, XI. tomoa, Madril: Edersa, 1982; 422-423 orr.

Tresna hauen bidez, edozein delarik ere azkenean erabilia, finkatu ahal diren ahalmen posibleen inguruan legegilea oso zehatza aurkezten da. 831. artikuluko lehenengo atalak hiru funtzio aurkezten ditu bere lerroetan: hobekuntzak, adjudikazioak edo atxikipenak eta banaketak²⁰. Funtzio hauek ezin dira, ordea, mugagabeki luzatu, hori dela eta legegileak testamentugilearen borondateari ematen dio lehentasuna gehieneko epea finkatzeko; zentzu honetan inongo aipamenik ezarri ezean Kode Zibilak bi urteko epealdia aurkezten du gehieneko moduan²¹. Honen hasiera eguna oinordetzaren irekiera data izango da seme-alaba guztiak emantzipatuak badaude, ez bada kasua, denek egoera hau lortzen duten momentuaren zain egon beharko da kontaketa hasteko.

Baldintza guzti hauek betetzea beharrezkoa da izendapena bertan behera geratu ez dadin. Hala ere, oinarriko irizpide hauen errespetuaz gain, 831 artikulua hainbat egoera aurreikusten ditu, non, iraungipena izango den ondorioa baita ere: ezkontide alarguna berriz ezkondu izana, izateko erlazio bat mantentzea edo kausatzailea ez den beste norbaitekin seme alabaren bat izatea²².

2.2. Espainiako zuzenbide zibiletan

Espainian indarrean dauden ordenamendu zibilak ados agertzen dira oinordetza ordezkartzarekin. Halaber, akordio hau ez da luzatzen tresna honen ezaugarrietara, zeren ez dago baterakotasunik hauek erregulatzeko orduan. Beraz, lurralde bakoitzak bere errealitate propioa erakusten du antzeko muga batzuen barnean.

Nafarroan, ordezkatzeko mota hau fiduziario-komisario izenpean jasotzen da eta Nafarroako Foru Berriko 281 eta 288 legeen artean aurkezten da. Askatasun joera bati jarraituz ez da inongo erlazio berezirik eskatzen subjektuen artean, hala ere, tokiko ohiturek oraindik ere familiaren barne mantentzen dute bereziki ordezkatzeko aukera hau.

Izendapena egiteko biderik ohikoena ezkontza kapitulazioak izan arren, 281 legeak

testamentua zein eskritura publikoak baita tresna egoki moduan defendatzen ditu; hots, azken bi hauek fiduziarioak bere kargua exekutatzeko modu egokiak izango dira baita ere.

Ahalmenei dagokionez, lege ezberdinen (281, 285 eta 287 legeak) irakurketa burutu beharko da jakiteko ondorengo hauek direla eskuratu ahal diren funtzioak Nafarroan: oinordekoak aukeratzea, jaraunspena banatzea eta zatitzeko dagoen ondarea administratzea²³. Hala ere, legean jarduteko eremu zabal hau aurkeztu arren, izendatzaileak mugatu ditzake funtzioak bere borondatearen arabera.

Legegileak hainbat arrazoi konkretu aurreikusten ditu karguari amaiera eman ahal diotenak. Hauen artean 288 legeak aipatzen ditu: fiduziarioaren heriotza, uko egiteagatik eta karguaren betetze ezintasunagatik; hauez gain 284 legeak jasotzen du subjektuen banaketa, dibortzioa edo ezkontza deuseztasunak edota ezkontide alargunaren bigarren ezkontzak ondorio berdinak sortzen dituela. Legegileak, ordea, “*beste edozein arrazoi*” gertatzeak iraungipena ekarri dezakeela adierazten du, beraz, baieztapen barne egoera ezberdin ugari bildu daitezke²⁴.

Aragoan, arauketa luzea aurkezten da oinordetza fiduziarioaren inguruan, hain zuzen ere 1/1999 legea, otsailak 24koa, Aragoiko Oinordetzari buruzko Legeko 124. artikulutik 146.era. Testu berri honek errealitate hau modu argian erregulatzen du, aragoitarren eskaerei aurre eginez²⁵.

Kasu honetan ez da beharrezkoa ezkontide erlazioa egotea izendatzailea eta izendatuaren artean, aldiz onuradun posibleen eremua ez da hain zabala. 142.1 artikulua irizpide ezberdinak aurkezten ditu onuradunaren izendapenaren inguruan; hauetan lehenengoa testamentugileak aurretik zehaztutako subjektu posibleen artean bat edo batzuk aukeratzean datza. Aldiz, aurretik inor ez bazen izendatu ondorengo ahaideen artean aukeratu beharko da eta ondorengoan gabezia, orduan erabateko askatasuna egongo da.

20. LOPEZ BELTRAN DE HEREDIA, Carmen: “El artículo...”, cit.; 1126 or.

21. HERRADA ROMERO, Rafael Ignacio. “Algunas consideraciones...”, cit.; 838-855 orr. burutu zuen lan zabal bat 831. artikulua aurkezten zituen epealdiari buruzko irizpideei buruz 2003. urteko erreforma aurretik; gaur egun denbora mugak aldatu dira baina eginiko lana modu positibo batean baloratu behar da eta oraindik ere aplikagarria kontsideratu bere filosofia, zeren eta berau ez da aldatu erregulazioa berritua izan arren.

22. Posible izango da testamentugileak zehatza espresuki legeak aurreikusirik iraungitze arrazoiak batek edo batzuk ez sortzea ondorio hori.

23. CAMARA LAPUENTE, Sergio. “De los fiduciarios comisarios”. In: *Comentarios al Fuero Nuevo. Compilación del Derecho civil foral de Navarra*, Enrique RUBIO TORRANOK zuzendua, Iruña: Aranzadi-Nafarroako Gobernua, 2002; 841 or.

24. CAMARA LAPUENTE, Sergio: “De los...”, cit.; 883 or. Hemen hainbat adibide jasotzen ditu autoreak: ezarritako epeen igarotzea, fiduziarioen bozka berdinketagatik, karguaren mugak ez errespetatzea edo fiduziarioak desjarauspenean arrazoi bat betetzea.

25. LATORRE MARTINEZ DE BAROJA, Emilio. “De la fiducia sucesoria”. In: *Manual de Derecho sucesorio aragonés*, José Luis MERINO HERNANDEZek zuzendua, Zaragoza: Sonlibros, 2006; 370 or.

Izendapenak egiteko eta ahalmenak egikaritzeko tresna berdinak baimentzen ditu legeak: testamentua eta eskritura publikoak, beraz, beste hainbat lurraldetan jarraitzen diren irizpide berdinak errespetatzen dira lurralde honetan ere.

Hainbesteko zehaztasuna ez da agertzen ahalmen posibleak zerrendatzeko orduan. Legegileak "oinordetza antolatze" aukeraz hitz egiten du soilik. Baietzapen orokor honekin ondorioztatzen da izendatuak jarduteko askatasuna duela, beti ere testamentugileak hau ez badu mugatzen.

Denborazko irizpideei dagokionez, lege berriak asko hobetu du gai honen inguruko araudia. Hiru dira epe posibleak: lehenik eta behin, testamentugilearen borondatea errespetatu beharko da, baina ezer ez bada finkatu begiratu beharko da nork burutzen duen kargua: ezkontide alarguna bada izendatua, kargua biziartekoa izango da, eta beste edozein pertsona bada ahalmenak egikaritu behar dituenak, epea hiru urtera mugatzen da. Hauek kontatzen hasiko dira kausatzailearen heriotza unean, baina momentu horretan senipartedunetako norbait adin txikia bada, orduan hasierako data atzeratzen da guztiek adin nagusitasuna lortu arte.

Azkenik, iraungipenari dagokionez, 147 artikulua hainbat supostu aurreikusten ditu zehazki: testamentugileak aurrezarrirako iraungitze arrazoiak betetzea, finkaturiko epealdia burutzea, fiduziariora hiltzen bada edo absente deklaritzen bada, karguari uko egitea, ezkontide alarguna berriz ezkontzea edo izatezko erlazioa mantentzea eta fiduziariora ezduina deklaritzea. Guzti hauei oinarritzko baldintzak ez betetzea gehitu beharko da, nahiz eta espresuki ez zehaztu hau.

Balear uharteetako zuzenbide zibila hiru liburutan zatitzen da, aldiz, oinordetza ordezkapenen inguruan lehenengoak eta hirugarrenak hitz egiten dute soilik. I. Liburuko 18 eta 23 artikuluen artean banatzaile-fiduziariora tresna erregulatzen da (printzipioz Mallorcari eragiten dio liburu honek, baina II. Liburuko 65. artikulua arabera araudi hau Menorcan ere kontutan izan behar da)²⁶. Bestalde, III. Liburuko 71. artikuluan Ibisa eta Formenterari aplikagarri zaion oinordetza fiduziariora buruz hitz egiten da.

Beraz, argia da erregela ezberdinak aplikatzen direla uharte hauei, eta gainera orain ikusiko dugun moduan hauen edukiak ez du bat egiten.

Subjektuei dagokionez, Mallorcan ez da eskatzen inongo ezkontza edo familia erlaziorik testamentugilea eta izendatuaren artean, hots, Ibisa eta Formenteran derrigorrezkoa da hauek ezkonduak egotea beraien artean. Onuradunarekiko, lehenengo kasuan izendatzaileak aurrez aukeraturiko familiakideen artean zehaztu beharko du izendatuak eta bigarren kasuan, ondorengo ahaideen arteko norbait finkatu beharko da.

Formazko irizpideen inguruan esan daiteke adostasuna dagoela uhartearen artean nahiz eta I. Liburua ez izan hain zehatza. III. Liburuak izendapena eta geroagoko karguaren exekuzioa testamentua eta eskritura publikoen bidez egin behar dela adierazten du. Mallorcako erregelamendua zabalagoa aurkezten da zeren tresna hauei buruz hitz egitean ekintza *inter vivos* edo azken borondatezkoak aipatzen ditu modu orokor batean. Doktrinak, baietzapen zabal honen interpretazioa eta mugapena eginez, ulertzen du testamentua eta eskritura publikoak izango direla tresna egokiak izendapen eta exekuzio lanetarako²⁷.

Ahalmen posibleak aurkezteko unean zehaztasuna aldatu egiten da formalitateekin alderatuz. Kasu honetan Ibisa eta Formenterako ordenamendua aurkezten da zehaztugabeagoa zeren oinordetza antolatzea izango da izendatuak bereganatzen duen funtzio bakarra eta zabala²⁸. Mallorcari dagokionez, 18. artikulua zehazki aurkezten ditu ahalmen posibleak: testamentugilearen ondasunak banatu eta jaraunlea aukeratu. Legearen zerrenda hau mugatu ahal izango da izendatzaileak horrela erabakiz gero.

Epealdia eta iraungipenari dagokionean, III. Liburuak ez ditu gai hauek arautzen, bai ordea I. Liburuak. Denborazko irizpideen inguruan 19. artikulua bi epe posible aurkezten ditu eskuraturiko ahalmenen arabera. Halaber, ondasunen banaketa soilik burutu behar badu izendatuak testamentugilearen borondatea errespetatu beharko du, eta zentzu honetan ezer ezarri ezean berehalakotasuna izango da irizpidea,

26. II. Liburuko 65. artikulua: "Rige en la isla de Menorca lo dispuesto en el Libro I de esta Compilación, excepción hecha de los artículos 6 y 7, en lo referente a la donación universal de bienes presentes y futuros, del Capítulo II del Título II, de los artículos 50 y 51 del Título III".

27. LOPEZ DEL POZO, Pedro. "La sucesión hereditaria en Ibiza y Formentera". In: *Derechos Civiles de España*, Rodrigo BERCOVITZ, Julián MARTINEZ SIMANCASEK zuzendua, II. bolumena, Nafarroa: Aranzadi, 2006; 4967 or.

28. CARDONA GUASCH, Olga. "La fiducia sucesoria". In: *Lecciones de Derecho civil Balear*, María Pilar FERRER VANRELLEK zuzendua, 3. edizioa, Palma: Universitat de las Illes Balears, 2004; 368 or.-an esaten du orokortasun honetatik ondorioztatzen dela ahalmen posibleak direla: 1) jaraunle bat edo batzuk izendatzea; 2) kausatzailearen ondasunak banatzea askatasun irizpidearekin; 3) mugapenak, baldintzak, fideikomisoak eta seniparte ordainketak ezartzea.

beraz, kausatzailearen heriotza ondoren ahalik eta azkarren. Aldiz, ahalmen posibleak banaketa lanez gain oinordekoa aukeratzera zabaltzen bada ez da inongo epemugarik aurkezten, beraz, askatasuna izango da irizpide nagusia.

Iraungipen arrazoiak, oinarrizko baldintzak ez betetzeaz gain, artikulua ezberdinetan jasotzen dira, hauetatik ondorioztatu daitekeelarik gertaera hau emango dela kargua ez denean betetzen edozein arrazoi dela medio, banatzailearen aurre-heriotzagatik eta onuradun posible guztiak aurre-hiltzean.

Kataluniako Oinordetza Kodeak 148 eta 149 artikulua eskaintzen dizkio eremu honetako ahalmenen ordezkatzeko posibleei. Artikulu hauetako bakoitzak erregulazio propioa aurkezten du kargurako izendatzen den subjektuaren arabera. Lehenengoak fiduzia ezkontza erlazio bati lotuta aurkezten du, bigarrenkoa, hots, izendapena gertueneko bi familiakideren alde egiten den kasuetarako aurrekusten da. Onuradunei dagokionez, bi egoeretan seme-alabak edota ondorengoak izan ahal dira, baina 149 artikulua zehaztapen bat egiten du: ondorengo ahaideak onuradunak izendatzeko seme-alabak hilik egon beharko dira.

Formazko betekizunei dagokionez, ez da ezer esaten izendapenaren momenturako²⁹. Aldiz, exekuziorako beharrezkoak diren tresnak bai jasotzen dira espresuki. 148 artikulua testamentua, heredamentua eta eskritura publikoei buruz hitz egiten duen bitartean, 149 artikulua eskritura publikoetara mugatzen da. Bestalde, tresna hauen bidez egikaritu ahal diren funtzioen inguruan desadostasun nabaria dagoela esan daiteke, zeren 148 zein 149 artikuluek eremu hau erregulatu arren, lehenengo zabalagoa aurkezten da, alegia, kargua ezkontideen artean ematen denean bizirik geratzen denak jaraunsle bat edo batzuk izendatu ahaliko ditu, izendatzailearen ondasunak banatu eta egokiak kontsideratzen diren baldintza, besterentzeko mugapenak eta ordezkapenak finkatu ere. Aldiz, 149 artikulua oinordekoak izendatzeko ahalmenaz soilik hitz egiten du.

Ahalmen hauek egikaritzeko epea ez da erregulatu 148 artikuluan, bai ordea 149.enean. Kasu honetan ere, testamentugilearen borondateari ematen zaio lehentasuna, baina ezer finkatu ezean bost urteko epea aurkezten du legegileak egikaritzea lanetarako, behin hau igarota ez bada kargua bete interesatuek exekuzioa eskatu dezakete. Kasu honetan sei hilabeteko epealdi berria ezarriko da.

Iraungipena modu desegokian arautzen den gaia da lurralde honetan, zeren bi artikuluetan arrazoi ezberdinak jasotzen dira baina inongo loturarik gabe, eta hainbat kasutan interpretazioa beharrezkoa da. Ulertzen da oinarrizko ezaugarriak betetzen ez badira hau iraungi egiten dela, adibidez, subjektuen arteko banaketa, dibortzioa edo ezkontza deuseztasuna ematean, seme-alaba edo ondorengorik ez egotean edo epeak ez errespetatzean³⁰. Espresuki bi aukera jasotzen dira soilik: bizirik geratzen den ezkontideak bere funtzioak ez betetzea eta fiduziarioak karguari uko egitea.

Galiziako zuzenbidea kontraesankor moduan deskribatu ahal da oinordetzako ordezkapenen inguruan, zeren legegileak aukeraturiko izendapena (komisario bidezko testamentua) ez dator bat karguaren benetako edukiarekin. Izen honen bidez ordezkapen eremu oso zabala baimentzen da eta hau ez da Galiziako araudiaren ezaugarri³¹.

Adierazitakoaren adibide argia da partehartzaileen eremua, zeren hauen artean ezkontza edo izatezko erlazioa egotea beharrezkoa da. Gainera onuradunak ere ezingo dira modu askean aukeratu, legeak seme-alaba edo ondorengoaren artean zehaztu beharra finkatzen du.

Subjektu hauen izendapena egiteko bideak ere konkretuki aurkezten dira 197 artikuluen bidez: testamentua zein ezkontza kapitulazioak. Aldiz, zehaztasun hau ez da mantentzen exekuzio moduak adieraztean, zeren 200 artikulua baieztapen orokor baten bidez ekintza *inter vivos* eta *mortis causa* aipatzen ditu.

29. Doktrinaren interpretazioak ulertarazten digu izendapenerako tresnak direla testamentua, heredamentuak eta kodiziloak. Interpretazio hau Konpilazioko 115 eta 116 artikuluetan ere mantentzen zen eta baita ere gaur egungo hainbat autorek, adibidez, PUIG FERRIOL, Luis. "Comentarios a los artículos 109 a 116". In: *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales, Artículos 97 a 121 de la Compilación de Cataluña*, Manuel ALBALADEJOK zuzendua, XXVIII tomoa, 1. bolumena, Madril: Edersa, 1982; 259 or, Konpilazioaren garaian, eta baita ere gaur egun, PUIG FERRIOL, Luis; ROCA TRIAS, Encarna. *Instituciones de Dret civil de Catalunya, Dret de successions*. III. bolumena, Balentzia: Tirant lo Blanch, 2004, 287 or. Ideia berdina mantentzen du PEREZ MAYNAR, David. "La institución de heredero por fiduciario". In: *Comentarios al Código de Sucesiones de Cataluña, Ley 40/1991 de 30 de diciembre*, Lluís JOU I MIRABENTek zuzendua, I tomoa, Bartzelona: Bosch, 2004; 563 or.
30. Zalantza gehiago sortzen dira bizirik dagoen ezkontidearen bigarren ezkontza ematean zer gertatzen den, doktrinaren gehiengoak usten du honek ez duela eragiten. PEREZ MAYNAR, David. "La institución...", cit., 562 or.
31. Irizpide hau hainbat autorek mantentzen zuten aurreko legearen itzalpean, baina beraien baieztapenak gaur egungo araudira ekarri ahal dira: CARBALLLO FIDALGO, Marta. "La fiducia sucesoria de disposición de los ordenamientos forales. Especial consideración al testamento por comisario gallego". In: *Actualidad civil*, 1. zenbakia, Madril: La Ley, 2005; 1433 or; PEREZ ALVAREZ, Miguel Angel. "La sucesión testada". In: *Manual de Derecho civil gallego*, José Manuel LETE DEL RIOk zuzendua, Madril: Colex, 1999; 228-229 orr.

Ahalmen posibleen eremua ere benetan finkatua agertzen da galiziar legean. Bi funtzio dira izendatuak bereganatu ditzakeenak legearen arabera: oinordekoa edo legatu-hartzaileak izendatzea edota ondasunak banatzea.

Denbora irizpidea izango da agian zabalena gai honen barnean Galizian. Printzipioz testamentugilearen borondatea jarraituko da, baina honek ezer finkatu ezean kargua izendatua hil bitartekoa izango da. Aldiz, iraungipen arrazoiak aztertzerakoan berriz ere murrizta izan da legegilea. 202 artikulua egoera zehatz batzuk soilik zerrendatzen ditu iraungitze kausa moduan: banaketa, dibortzioa edo ezkontza deuseztasuna, izatezko banaketa eta karguaren errebozkioa.

3. Oinordetza ahalmenen ordezkartza Euskal Herriko Zuzenbide Zibilean

Euskal Herriko zuzenbide zibila gorputz juridiko baten barnean jasotzen den arren, hiru zatitan banatzen da. Gainera zatikatze honek ez du bat egiten hiru probintzien lurralde antolaketarekin erabat. Gipuzkoaren³² kasuan bere zuzenbide propioa lurralde guztian da aplikagarria baina baserri eremuetan. Bizkaian herrialde batzutan soilik dago indarrean euren lurraldeko ordenamendu propioa (3/1992 legea, uztailaren 1ekoa, bere 5. artikuluan aipatzen den Infanzonado edo lur lauan). Eta Arabako kasua bereziago da zeren Aramaio eta Laudion Bizkaiko zuzenbidea da aplikagarri, 131 artikulua aurreikusten dituen herrialdeetan Aiarako forua da kontuan izan behar dena eta gainontzeko lurraldean zuzenbide erkidegoa dago indarrean.

Berezitasun guzti hauek 3/1992 legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibil Foraleko Legean (EHZZFL) jasotzen dira. Aniztasun hau dela medio, hiru liburutan zatitzen da legea: lehenengoan Bizkaiko araudia aurreikusten da, bigarrengoan Aiarako foruek jarduten da eta hirugarrengoan Gipuzkoako egoera da aztergai³³.

Liburu hauetan toki bakoitzeko ohiturak zuzenbide idatzi moduan aurreikusten dira, horrela berezitasun propioak mantenduz. Arrazoi hau dela medio ezberdintasun nabariak daude testu juridikoen artean, ordea, errealitate baterakorrek baita ere aurkitu ahal dira. Azken baieztapen honen adibide argia oinordetza eremuko ordezkartza dira.

Bizkaia eta Gipuzkoan izen berdinarekin egiten zaio erreferentzia errealitate honi, komisario bidezko testamentua, hots, edukian sakonduz gero ezberdintasunak argiak dira, aurrerago ikusi ahal izango dugun moduan. Aiarako kasuan izenak ez du bat egiten aurrekoekin eta edukian ere desberdintasun adierazgarriagoak daude. Edozein kasutan, guztiek izaera berdina errespetatzen dute, hau da, baimentzen da kasu orotan testamentugileak hirugarren bat izendatzea bere eskubide eta ondasunak banatzeko. Beraz, kontutan izanik jatorri berdineko errealitatea onartzen dela hiru probintzietan, aztertu dezagun bakoitzak proposatzen dituen berezitasunak.

3.1. Izena

Esan dugu lehen Bizkaia eta Gipuzkoako legediek bat egiten dutela errealitate honen izendapenean, hain zuzen ere komisario bidezko testamentua deritzo. Izen hau bereganatzen duten ordenamenduak arazotsuagoak dira fiduzia kontzeptua erabiltzen dutenak baino, zeren lehenengo kasuan pertsonalismo formalarekiko³⁴ errespetua zalantzan jartzen da.

Gaur egun ordea ezin da esan komisario bidezko testamentuetan pertsonalismo formalak erabat alboratzen denik. Historikoki komisario kontzeptuak suposatzen zuen honek izendatzailearen testamentua egiten zuela. Egun ideia hau ezin da mantendu, zeren momentu honetan komisario bidezko testamentua definitu daiteke pertsona batek (komisarioak) emandako testamentu moduan, jada hila dagoen beste baten baimenarekin, azken honek adierazitako boterea dela medio³⁵. Beraz, ez da beste baten testamentua egitea, zeren ezinezkoa da hilik

32. Lan benetan interesgarria burutu zuen Gipuzkoako ohituen inguruan NAVAJAS LAPORTE, Álvaro. *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, Donostia: Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, 1975.

33. Denbora gutxi da hirugarren liburu hau zabaldu dela. 1992. urtean lege hau onartu zenean Gipuzkoari 147. artikulua soilik eskaini zitzaion. Honen bidez lekuko ohituen garrantzia aurreikusten zen eta beraien positibizazioaren beharra adierazi zen. Egoera honen aldaketa 3/1999 legearen, azaroaren 6koa, "Euskal Herriko zuzenbide zibilarren aldaketa legea Gipuzkoako foru zibilar dagokionean", bidez eman zen. Honekin Gipuzkoako ordenamendua 147. artikulua soilik izatetik 188. artikulua-arte luzatu zen.

34. Beharrezkoa da desberdintzea pertsonalismoaren inguruko bi plano posible: pertsonalismo formalak eta materialak. Lehenengoak suposatzen du ezinezkoa dela hirugarren batek kausatzailearen testamentua egitea; eta bigarrengoaren bidez eskatzen da baliozko tresna bidez adierazten den borondatea izendatzailearena izatea. Desberdintasun honen planteamendua ASUA GONZALEZ, Clara Isabel. *Designación de...cit.*; 17-18 orr. egiten du. Aldiz, ideia berdina jasotzen dute baita ere BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, Rodrigo. *Comentarios al...*, cit.; 849-850 orr. eta ALEGRE ALONSO, Guillermo. "Naturaleza jurídica de la fiducia sucesoria". In: *Revista de Derecho civil aragonés*, IV. urtea, 1 eta 2 zenbakiak, Zaragoza, 1998; 65 or.

35. CELAYA IBARRA, Adrian. "El testamento...", cit.; 736 or.

dagoen norbaiten izenean jardutea³⁶. Gaur egun, ordea, beste pausu bat emanez, hainbat autoreren ustez jarduera hau kontsideratu behar da, ez beste baten izenean jardutea, baizik eta norbere izenean baina beste pertsona baten ondarearekin erlazionatuta³⁷.

Garai bateko kontzeptutik hona aldaketa nabaria da, baina honek ez du ulertarazi behar komisario bidezko testamentua gainerako espainiar lurraldeetan aurreikusten den fiduzia errealtateetara parekatu denik, zeren azken hauek oraindik ere ahalmen mugatuagoak jasotzen dituzte.

Aiarako foruari dagokionez, jarduera hau “botere osoko gozamina” (usufructo poderoso) izenpean kokatzen da. Hainbat ezaugarri ditu, non, gainerako antzeko tresnetatik bereizten den. Agian, bere baldintza nagusienetakoa da bi egoera bat egiten direla, gozamen unibertsa eta ezkontideari ematen zaion ahalmena onuradunak aukeratzeko seme-alaba³⁸ edo ondorengoan artetik.

Benetan adierazgarria da Euskal Herriko lurralde ezberdinetan dagoen adostasun falta errealtate hau izendatzeko orduan. Guztiek aurreikusten dute egoera bat “oinordetza ordezkari”³⁹ izenpean gorde daitekeena, baina bakoitzak zehaztasun ezberdinak proposatzen ditu, non, toki bakoitzean errealtate berezi bat egotea bultzatzen duen.

3.2. Subjektuak

Oinordetza eremuaren barnean ematen diren ordezkarietan beharrezkoa izango da hiru subjektuen partehartzea: izendatzailea⁴⁰, agindua bereganatzen duen ordezkaria eta onuraduna. Gainera posible izango da kargu hauetako batzuetan, hainbat kasutan, pertsona bat baino gehiago finkatzea.

Hiru probintzietan oso ezberdina aurkezten da subjektu hauen inguruko araudia eta beraien arteko erlazio posibleak. Bizkaia izan daiteke hiruren artean zabalena eta aukera gehienak

ematen dituen, zeren ez da beharrezkoa izango izendatzailea eta izendatuaren artean ezkontide edo familiako erlaziorik mantentzea. Baieztapen hau ez da espresuki jasotzen baina legeak berak bi errealtate bereizten ditu: “alkar poderoso”, kargua ezkontideak bereganatzen duenean jasotzen duen izena da, eta “kanpoko komisario”, izendapen hau gainontzeko subjektuen partehartzea ematen denean erabiltzen da⁴¹.

Bizkaiko azken araudiak jaso duen berrikuntzarik garrantzitsuenetakoa tresna hau bizkaitar guztiei zabaltzean datza. 1959. urteko Konpilazioak bizkaitar aforatua izatea eskatzen zuen testamentu ahalordea erabili ahal izateko. Gaur egun, 3/1992 legeak, uztailak 1ekoa, bere 13. artikuluan subjektuen eremua zabaltu du. Baldintza honez gain, beharrezkoa izango da baita ere testamentua egiteko gaitasuna izatea izendatzaileak, eta 34 artikulua komisario moduan jarduteko gaitasuna eskatzen dio izendatuari⁴² baita ere.

Gipuzkoako kasuan, eremu hau askoz ere murriztagoa da zeren EHZZFL-ko 164 artikulua ezkontideak izatea eskatzen du aipatzen ditugun subjektuak. Beste inolako baldintzarik ez du gehitzen legegileak, baina baieztapen honek erabat mugatzen du instituzio hau.

Aiaran isiltasuna da nagusi. Ez da inongo zehaztasunik egiten subjektuen erlazioaren inguruan. Hala ere, tokiko ohitura kargua ezkontideen artean ezartzearen alde aurkezten da, baina honek ez du esan nahi horrela izan behar denik derrigorrez.

Onuradun posibleei dagokionean, ez dago adostasunik hiru probintzien artean berriz ere. Bizkaia da askatasun eremu zabalena aurkezten duena beste behin, zeren ez da inongo erlazio zehatzik eskatzen hauek eta izendatzailearen artean⁴³. Gipuzkoa ere lerro berdinean mantentzen da eta ez da beharrezkoa izango kasu honetan inongo harreman berezirik subjektu partehartzaileen artean printzipioz. Aldiz, 164.1.2 artikulua berezitasun bat jasotzen du, zeren komisarioak ez du erabateko aukera askatasuna;

36. ASUA GONZALEZ, Clara Isabel. *Designación de...*, cit.; 47 or; CARBALLO FIDALGO, Marta. “La fiducia...”, cit.; 1417 or.

37. CARBALLO FIDALGO, Marta. “La fiducia...”, cit.; 1417 or.

38. CELAYA IBARRA, Adrian. *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales. Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco, XXVI tomoa*, Madrid: Edersa, 1997; 580 or.

39. MERINO HERNANDEZ, José Luis. *La fiducia sucesoria en Aragón*, Zaragoza: El Justicia de Aragón, 1994, 13-14 orr.

40. Derrigorrezkoa izango da izendatzaileak errealtate hau aplikagarria den lurraldean auzotasun zibila izatea. Honen inguruan Bizkaiko Entzutegi Probintzialak 1998ko maiatzaren 14an emaniko 262/1998 epaia aztertu daiteke. Zentzu berean, baina denboran atzera eginez eta 3/1992 legearen eremutik kanpo, gai berdinar buruz jarduten du Auzitegi Gorenak 1990eko urriaren 15ean emaniko epaian.

41. Aukera hauek egon arren, praktikan oraindik ere ezkontideen artean izendatzea da arruntena.

42. Baieztapen hau beste berrikuntza bat da Kompilazioarekiko, zeren lehen ez zen gaitasunaren eremua arautzen.

43. Inongo muga espresik jaso ez arren, argi dago senipartea eta tronkalitateari buruz esaten dena errespetatu egin beharko dela.

honek onuradunen izendapena burutu beharko du aurrez izendatzaileak finkaturiko pertsona taldearen artetik. Eta zer gertatzen da aurrez inongo pertsona taldea ez bada ezarri? Artikulu berdineko hurrengo atalak erantzuten dio galdera honi. Bertan esaten da leku hau derrigorrezko jaraunsleek beteko dutela.

Aiarako Legea erabat zehatza aurkezten da eremu honetan. Onuradunen izendapena izendatzailearen seme-alaba edo ondorengoen artean egin beharko da. Gainera legeak aukera ematen du onuradun posibleen taldea oraindik gehiago mugatzea testamentugileak horrela nahi izanez gero (141. art).

3.3. Elementu formalak

Esan daiteke bi une ezberdinetan errespetatu behar direla formalitateak oinordetza eremuko ordezkari-tza prozesuetan zehar. Lehenengoz, kargua beteko duen pertsona edo pertsonen izendapena egitean, eta gero finkatu den subjektuak burutu behar dituen funtzioak betetzerakoan⁴⁴.

Kasu honetan ere ez da erabateko adostasuna erakusten hiru lurraldeetako araudien artean. Izendapenaren inguruan, Bizkaia eta Gipuzkoako kasuetan 33 eta 165 artikulua erabiltzen dira helburu honetarako, hurrenez hurren. Biek bat egiten dute testamentua tresna egokitzat kontsideratuz komisario izendapena egiterako orduan, aldiz, Gipuzkoako araudia argiago aurkezten da eremu honetan; Bizkaian Notarioaren aurrean izan behar dela esaten den bitartean, Gipuzkoan gaineratzen da testamentua irekia izateko beharra, adierazpen honek hainbat arazo praktikoa ekiditen dituelarik.

Testamentuaz gain, bi araudi hauek beste tresna batzuk gehitzen dituzte. Bizkaiko kasuan izendapena ezkontideen artean egiten bada ezkontza kapitulazioak eta oinordetza itunak ere baliozko bideak izango dira. Gipuzkoan, modu orokorrago batean, eskritura publikoak aurkezten dira tresna baliagarri bezala, baina artikulua berdinean (164. artikulua) ezkontza kapitulazioak aipatzen dira. Baieztapen honen inguruan sortzen den zalantza izango da ea kapitulazioak onartzen diren eskritura publiko bakarrak diren edo adibide

moduan izendatzen den berau. Pertsonalki, azken idearen alde aurkezten naiz. Kapitulazioak onargarriak diren eskritura publikoen adibide dira eta hauek aipatu dira zeren guztien artean erabili den elementua da. Honek ez dio itxiko aterik gainerako tresna publikoei.

Aiarako foruak ez du espresuki adierazten inongo forma egokirik botere osoko gozamenaren kargurako izendapena egiteko, hori dela eta beharrezkoa izango da gainontzeko erregulazioak aztertzea bide egokiak finkatzeko. Hala ere, tokiko ohiturak kontutan hartuz Aiaran gehiena erabili den tresna helburu honekin ezkontza kapitulazioa da, testamentua baino gehiago gainera.

Bigarren momentu bat formalitateak errespetatzeko beharra aurkezten dena ezarritako ahalmenen exekuzio unea da. Bizkaia eta Aiarako araudiek bat egiten dute tresna posibleak modu orokor batean aurkezterakoan; hauek ezartzen dituzte ekintza *inter vivos* edo *mortis causa* bide egoki moduan. Bizkaia kasuan, eta bide batez Aiarara ere luzagarria izan daiteke, irizpide zabalatasun hau EHZZFLko 27. artikuluan aipatzen diren tresnez zehatza daiteke: testamentua⁴⁵, oinordetza itunak, ezkontza kapitulazioak edo dohaintza eskriturak. Beraz, aipaturikoak exekuzio bide egokiak izango dira eremuotan.

Gipuzkoar legedia, zehatzagoa da beste bi probintziak baino exekuziorako tresnen arauetan, baina zabalagoa lurralde berdineko izendapenerako tresnen erregulazioa baino. Kasu honetan testamentua eta eskritura publikoak aipatzen dira 170 artikuluan, baina ez du mugatzen zein testamentu mota, beraz, edozein izan daitekeela ulertzen da, Notario aurreko irekia izateko beharrik gabe⁴⁶. Eskritura publikoei dagokionez, ez du inongo adibide egokirik finkatzen ezta ere.

3.4. Ahalmenak

Hiru lurraldeen artean akordio maila altuena lortzen den gaia eskuratu posible diren ahalmenen inguruan da, zeren guztiek eremu zabala aurkezten dute izendatuak bereganatu ahal ditzakeen funtzioen inguruan, hots, hauen aurkezpena erabat ezberdina da arau bakoitzean.

44. Bizkaian izendapena eta beharrezko zehaztapenak testamentu ahalordearen bidez egiten dira.

45. Komisarioa izendatzeko formalitateen arauketan ez bezala, kasu honetan ez da zehazten zein motatako testamentua erabili ahal den ahalmen hauek egikaritzeko, printzipioz, mota guztietako testamentuak direla onargarriak ulertu beharko da, baina dio CELAYA IBARRA, Adrián. *Comentarios al* (1997)..., cit.; 196 or, eta pertsonalki defendatzen dut, "la Ley no exige que el poder se ejercite en testamento notarial, lo que, a mi juicio, se justificaría mucho mejor que la exigencia de la forma notarial para designar comisario. Estimo absurdo que se disponga del poder en un documento, como el ológrafo o el cerrado, que se mantiene oculto a los beneficiarios, y que puede revocarse con sólo destruirlo".

46. Legegileak nahi izan balu erabili ahal den testamentua Notario aurreko irekia soilik izatea, hau zehaztuko zuen 165 artikuluan bezala.

Hala ere, kontutan izan behar da legeak jasotzen dituen aukerak izendatzailearen borondatez moldatuak izan daitezkeela. Inolako irizpiderik ez badu aurkezten azken honek, orduan legeak finkaturiko mugak errespetatu beharko dira.

Ahalmen posibleen zerrenda zehatzena Bizkaiko araudian ikusten da. 32 artikulua izendatuari oinordekoa finkatu eta ondasunak banatzeko aukera⁴⁷ ematen dio, baina artikulua jarraitzen du esanez izendatuak bereganatu ahalko dituela baita ere oinordetza besterentzeko beharrezkoak diren funtzio guztiak. Azken baieztapen honen bidez ulertzen da aukera ezberdinak izango dituela izendatuak, besteak beste, bazterketak egin, kargak edo ordezkapenak ezarri, partizioa egin, dohaintzak finkatu... baina beti ere jarduera hauek egiteko legeak esaten dituen mugak errespetatuz⁴⁸.

Gipuzkoan ere aukera zabala izango du izendatuak. 164.1 artikulua bizirik geratzen den ezkontideari baserria eta hau osatzen duten elementuen oinordea izendatzeko aukera ematen dio, eta baita ere gainerako ondare guztiarengan. Beraz, izendatuak eremu oso zabala izango du beregan erabakiak hartzeko momentuan.

Aiarako egoera bereziagoa da. karguaren izaera dela eta, bi izango dira iturriak ahalmenak finkatzeko. Alde batetik gozamenetik eratortzen diren eskubideak, eta bestetik kausatzailearen ondasun batzuk edo guztiak besterendu ahalko ditu oinordetza ordezkapena dela medio. Nahiz eta besterentzea aurkeztu ahalmen posible bakar moduan, honek gozamenidunari jarduteko askatasun handia ematen dio, zeren ez da inongo mugapenik aurkezten besterentzearen egikaritzaren inguruan.

Hiru lur eremu hauetan aipaturiko ahalmenak bereganatzen dituen subjektuak, baita ere hainbat karga jasan beharko ditu bere kargua dela eta. Bizkaian hauek 36, 41 eta 42 artikuluetan aipatzen dira. Lehenengoak inbentarioa egiteko beharra aurkezten du; bigarrenak mantenu eskubidea bat aurreikusten du hau eskatzeko ahalmena dutenen alde⁴⁹; eta azkenengoaren arabera komisarioak hildakoaren

seme-alaba eta ondorengoaren tutoretza eta kuradoretza karguak sustatu beharko ditu hauen beharra egonez gero.

Gipuzkoan betebeharrak 167 artikulua aurkezten dira. Honen arabera, komisarioak sei hilabeteko epean inbentarioa egin beharko du hildakoaren ondasun, eskubide, karga eta oinordetza obligazioak aipatuz.

Eremu honen berri Aiaran 144 eta 145 artikuluetan jasotzen da. Lehenengoak dio beharrezkoak diren konponketa, gastu, kargak eta kontribuzioak bere gain hartu beharko dituela izendatuak; eta 145 artikulua aldiz, fidantza ordaintzeko kargatik askatzen du usufruktuduna⁵⁰.

3.5. Administrazioa

Aurrerago ikusi ahal izango dugun moduan, kargua eskuratzen den momentutik hau egikaritu arte epealdi luzea igaro daiteke. Denbora tarte honetan banatzeko dauden ondasunak ezegonkortasun egoera baten aurrean egon daitezke, hori dela eta beharrezkoa izango da hauek administratuko dituen pertsona bat izendatzea.

Kasu honetan ere, izendatzailearen borondatea izango da irizpide nagusia. Beraz, printzipioz azken honek finkaturiko subjektuak egikaritu du kargua. Halaber, gertatu daiteke inor ez zehaztea jarduera hau burutzeko, orduan beharrezkoa izango da legeak finkatzen dituen neurriak kontutan hartzea.

Bizkaiko kasuan, 40 artikulua aurreikusten du izendapenik egon ezean ezkontideak bereganatuko duela kargua, eta honek ezingo balu jardun edo ez bada existitzen, orduan komisarioa da funtzio hau beteko duena.

168 artikulua egoera honi konponbidea jartzen dio Gipuzkoan gertatuz gero. Kasu honetan, inor izendatu ezean zuzenean komisarioak bereganatuko du⁵¹ funtzioa.

Aiaran, ez da inongo konponbiderik aurreikusten administratzaile karguaren

47. Erabaki hauek hartzeko orduan tronkalitatea eta senipartearen inguruko mugak errespetatu behar dira.

48. CELAYA IBARRA, Adrián. *Comentarios al (1997)*..., cit.: 178 or.

49. CELAYA IBARRA, Adrián. *Comentarios al (1997)*..., cit.: 186 or, autore honek kritikatzeko du artikulua hau isla txiki bat dela Bizkaian aurretik zegoen ohitura zabalarena. Aurreko garaian, jaraunle bakarraren izendapenari gehitzen zitzaizkion obligazio batzuk, hain zuzen ere seme-alabei beharrezkoak zituzten gauzak eman eta izendatuaren anai-arreben hezkuntza gastuei aurre egin eta bereziki ezkongabe guztiek familiako etxean bizitzeko eskubidea hauek ezkondu bitartean. Gaur egungo 41. artikulua ohitura hauek mantenu eskubideetara mugatu ditu, eta gainera beste inor obligaturik ez dagoen kasuetan soilik.

50. ANGOITIA GOROSTIAGA, Victor. *El usufructo poderoso del Fuero de Ayala*, Gasteiz: Arabako Diputazio Forala, 1999; 195-197orr-etan aurreikusten da ez dela ezer esaten 140 eta 145 artikuluetan inbentarioa egiteko obligazioaren inguruan. Bizkaia eta Gipuzkoako arauetan obligazio hau aurreikusten da. Egoera honetan, autoreak ulertzen du hau ez dela derrigorrezkoa usufruktuduna ezkontidea denean; aldiz, beste edozein denean kargua bereganatzen duena, honek inbentario egin beharko du, beste ezer esan ezean izendatzaileak.

51. Kontuan izan behar da Gipuzkoan komisarioa ezkontidea izan behar dela derrigorrez, beraz, bera izango da ordezkaria beti.

inguruan hau izendatua izan ez den kasuetarako. Beraz, doktrinak eginiko interpretazioa jarraitu beharko da honelako egoera baten aurrean aurkituz gero. Honen arabera, izendapena falta denean, baita ere gozameduna izango da administrazio betekizunak burutu beharko dituenak.

3.6. Epealdia

Ezarritako funtzio guztiak egikaritzeko orduan, posible izango da denborazko irizpideak finkatzea izendatzailearen aldetik. Honek gehienezko epe bat ezarri ahal du berak agindutako funtzioak betetzeko. Aldiz, zentzu honetan ez badu ezer adierazten, orduan legegileak aurreikusiriko mugak errespetatu beharko dira⁵².

Adostasuna dago hiru lurraldeen artean kargua ezkontideen artean eraten bada azken hau biziartekoa izan daitekeela kontsideratzean. Hots, baieztapen hau ez da modu berdinean aurkezten hiru araudietan. Bizkaiko kasua argiena da. Bertan 44 artikulua espresuki adierazten du eperik finkatu ezean eta ezkontideen arteko izendapena izanez gero hau biziartekoa izan daitekeela. Gipuzkoan ordea, kargua ezkontidea hil artekoa izateko hau betiereko gozameduna izendatua izan beharko da. Elementu honen faltan jarduteko epealdia urtebetera murrizten da. Aiaran interpretazioa erabili beharko da ondorio honetara iristeko, zeren legeak ez du ezer ezartzen espresuki. Doktrinaren gehiengoak, hutsune honen aurrean, ulertzen du kargua ezkontideen artean burutzen bada baita ere biziartekoa izan daitekeela⁵³.

Bizkaian ordea, posiblea da ezkontideaz gain komisario moduan beste edozein pertsona izendatzea. Egoera honetan legegilea zorrotzagoa aurkeztu da, zeren jarduteko gehienezko epea urte batera murrizten da.

Edozein delarik egoera, epe guzti hauek kontatzen hasten dira izendatzailearen heriotza unetik edo bere heriotza deklaraziotik, beti ere oinorde posible denak adin-nagusiak badira. Aurkako egoeran, hasierako data izango da azken guzti hauek adin nagusitasuna lortzen duten eguna.

3.7. Iraungipena

3/1992 legeak, uztailaren 1ekoa, ekarpen benetan interesgarria egin zuen 48 artikulua bidez. Honekin modu egoki eta antolatuta batean komisario kargua iraungitzen dituen arrazoiak izendatzen dira. Gipuzkoako ohiturak modu idatzian jaso zirenean 1999. urtean zerrenda hau ia bere osotasunean bereganatu zuen legegileak 171. artikuluan, bere egokitasuna zela eta⁵⁴.

Ondorengoak dira Bizkaiko legeak jasotzen dituen iraungipen kausak, baina kontutan izan behar da testamentugileak bere borondatez arrazoi hauetako batzuen eraginkortasuna gutxitu zein ezeztatu dezakeela: 1) ezarritako epea igarotzea; 2) komisarioaren heriotza, ezintasuna edo ezgaitasuna; 3) komisario-ezkontidearen kasuan, banaketa, dibortzio edo ezkontza deuseztasun eskaera; 4) komisario-ezkontidea bigarren aldiz ezkontzea, egitatezko erlazioa mantentzea edo ezkontzaz kanpoko seme-alabaren bat izatea, salbu eta izendatzaileak aurkako esaten badu; 5) uko egitea; 6) komisarioak ez-duintasun arrazoi bat betetzea izendatzailea edo bere ondorengoekiko; 7) boterean bertan aurreikusiriko arrazoi bat betetzea; 8) errebokazioagatik.

Bi lurraldeek baieztapen guztietan bat egiten dute batean ezik. Gipuzkoan ez da kontsideratzen ezkontzaz kanpoko seme-alabaren bat izatea iraungipen arrazoi moduan Bizkaian bezala.

Aiaran, legearen urritasuna dela medio, ez da inongo arrazoirik aipatzen. Hau dela eta, berriz ere beharrezkoa izango da doktrinaren interpretazioak jarraitzea. Halaber, testamentugilearen borondatea oso garrantzitsua da eta honek iraungipen arrazoiaren bat ezarri gero kargua sortzean, hau errespetatu egin beharko da. Borondatezko irizpidez gain, instituzioaren oinarrizko ezaugarriak bete ezean ondorio iraungitzaile berdina lortuko da.

4. Etorkizunari begira

Aukera izan dugu ikusteko nola oinordetzaren inguruko ordezkari antzinatik erabili izan den errealitate bat dela Euskal Herrian. Bere jatorria tokiko aspaldiko ohituretan

52. Denborazko eremua ez da hain argia izan aurreko Euskal Herriko legeetan. Epaia oso adierazgarria gai honi dagokionean Euskal Herriko Justizia Auzitegia Nagusiak emanikoa da 2001eko urtarrilaren 23an. Bertan eztabaidatzen da ea 1/1992 legea, uztailaren 1ekoa, baino lehenagoko komisario bidezko testamentuen denborazko irizpideak zein diren. Horrelako kasuetan aipaturiko legeko bigarren xedapen iragankorra kontutan hartzea beharrezkoa izango da.

53. Ideia hau baita ere defendatzen du CELAYA IBARRA, Adrián. *Comentarios al* (1997)..., cit.; 581 or.

54. Doktrinak artikulua honen idazpena ospatu du, eta hainbat autorek bere egokitasuna adierazi dute eta interesgarria izango zela zerrenda hau oraindik irizpide erabat sakabanatuak jasotzen dituzten gainerako ordenamendu zibiletara zabaltzea.

kokatu arren, gaur egun aplikagarria izaten jarraitzen du. Honen isla argia bertako zuzenbidea da, zeren modu zabalean egoera honen berri jasotzen da oraindik. Hala ere ez da Euskal Herriko zuzenbidea bakarria tresna hau indarrean mantentzen duena. Espainian dauden Zuzenbide Zibil ezberdinek bat egiten dute ordezkariak hau onartzeko orduan, nahiz eta desadostasunak egon gero lurralde bakoitzeko edukien planteamenduen artean. Hauen aurrean, zuzenbide erkidegoari dagokionez, printzipioz ideia honen aurka aurkezten da, hots, denborarekin joera hau baita ere aldatzen ari da.

Errealitate hau oraindik ere aplikatzearen arazoietako bat, besteak beste, bere praktikotasuna da. Aukera honek irekitzen dituen ateak, norberaren ondasunen inguruko erabakiak hartzeko momentua atzeratzean datza. Honela, denboraren igarotzearekin neurri egokiagoa hartzeko egoera egongo dela usten badu testamentugileak, tresna honek bide hau baimenduko du.

Baieztapen honi gehitu behar zaio, zuzenbide zibil ezberdinak jasaten ari diren erreforma guztiek oinordetza eremuko ordezkapenen aldeko apustua egiten dutela, zeren gaia modu sakonagoan eta zabalagoan erregulatzen ari dira, honek aztergai dugun errealitatearen garrantzia adierazten duelarik.

Euskal Herriko egoerari dagokionean, hiru lurraldeetako ohiturek baimendu dute testamentuen inguruan ematen den aukera hau denboran zehar mantentzea. Gainera, Bizkaiaren kasuan, jada 1452. urteko Foru Zaharrean prozesu hau aurreikusten zen. Gaur egun hiru lurraldeetan ados agertzen dira ordezkapen hauen alde, nahiz eta ez egon erabateko batasuna, ikusteko aukera izan dugun moduan.

Desadostasun hau Euskal Herriko zuzenbideko eremu ezberdinetan aurkitu ahal dugu, zeren lurralde bakoitzari liburu berezi bat eskaintzen zaio eta honek ahalbideratzen du probintzia bakoitzak bere tresna propioak mantentzea. Batasun falta hau konpontzearen aldeko ahots ugari egon dira 1992ko legea onartu zen momentutik, hau dela eta hainbat Proiektu burutu dira azken urteetan arazo honi konponbidea emateko asmoz.

Eusko Legebiltzarra eta hiru Diputazioek akordio bat lortu zuten "Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte" delakoarekin, azken honek bertako zuzenbidea aztertu eta garatzeko helburuarekin. Ildo honetan, interesik handienetakoa antzekotasun bat mantentzen zuten instituzioen bateratzea zen. Ideia hori oinarrian hartuz, eskaera hau gopuztuko zuen lanen bat burutzea

gogoko zen. Lehen proiektu bat 1999ko abenduan aurkeztu zen, eta honen azken bertsio bat 2007ko ekainaren 20an aurkitu dezakegu.

Komisario bidezko testamentua eta botere osoko gozamenaren inguruan, lehenengoaren kasuan bategitea egon da Bizkaia eta Gipuzkoarentzat proiektuetako 30 eta 46 artikuluz zerrendaren bidez, aldiz, Aiarako lurraldeko araudia modu bereiztuan mantentzen da ia aldaketarik gabe egungo legearekiko. Komisario bidezko testamentuaren legeztatze bateratuari dagokionez, 1992. urteko testuak aurreikusten zuen oinarri ia berdina mantentzen da proposaturiko proiektuetan, noski, hainbat egokitzapen eginez, adibidez, izatezko bikoteen eskubideen parekatzea ezkonduerari, onuradunen eremua murriztea, exekuzio irizpide egokiagoak finkatu edota funtzio eta kargak zehaztu eta izendatzailearen borondatearen garrantzia espresuki adierazten da. Erredakzioaren inguruan zenbait berrikuntza eman dira baita ere. Guzti hau gehitu arren, agian egungo legearekin antzekotasuna gehiegizkoa dela esan daiteke.

Oinordetza eremuko ordezkatzeeen inguruko erreformetan gertatzen den "ausardia" falta proiektuko beste hainbat eremuetara ere zabalduta daitekeen baieztapen bat da. Hiru probintzietako zuzenbidea bategitea oso emankorra izan litekeen neurria da, baina ondorio hau ez da lortzen proposaturiko proiektuen bidez. Adibidez, azken urteetako doktrinan benetan eztabaidatuak izan diren alderdiak oraindik ere indarrean jarraitzen dute aldaketa handirik gabe, tronkalitate bezala. Eta hainbat kasutan bategite ahaleginak ez dira behar bezain handiak izan. Hala ere, oraindik denbora dago aurrera pausu garrantzitsuagoak emateko bategite eta garapen asmoak oinarritzat hartuz.

5. Bibliografia

- ALEGRE ALONSO, Guillermo. "Naturaleza jurídica de la fiducia sucesoria". In: *Revista de Derecho civil aragonés*, IV. urtea, 1 eta 2 zenbakiak, Zaragoza, 1998; 65-86 orr.
- ANGOITIA GOROSTIAGA, Victor. *El usufructo poderoso del Fuero de Ayala*, Gasteiz: Arabako Diputazio Forala, 1999.
- ASUA GONZALEZ, Clara Isabel. *Designación de sucesor a través de tercero*, Madril: Tecnos, 1992.
- BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, Rodrigo. *Comentarios al Código Civil*, 2. edizioa, Nafarroa: Thomson-Aranzadi, 2006.
- CAMARA LAPUENTE, Sergio. "De los fiduciarios comisarios". In: *Comentarios al Fuero Nuevo*.

Compilación del Derecho civil foral de Navarra, Enrique RUBIO TORRANOK zuzendua, Iruña: Aranzadi-Nafarroako Gobernua, 2002; 831-886 orr.
– *La fiducia sucesoria secreta*, Madril: Dykinson-Nafarroako unibertsitatea, 1996.

- CARBALLO FIDALGO, Marta. “La fiducia sucesoria de disposición de los ordenamientos forales. Especial consideración al testamento por comisario gallego”. In: *Actualidad civil*, 1. zenbakia, Madril: La Ley, 2005; 1413-1439 orr.
- CARDONA GUASCH, Olga. “La fiducia sucesoria”. In: *Lecciones de Derecho civil Balear*, María Pilar FERRER VANRELLEK zuzendua, 3. edizioa, Palma: Universitat de las Illes Balears, 2004; 365-371 orr.
- CELAYA IBARRA, Adrian. “El testamento por comisario”. In: *Anuario de Derecho civil*, 25. bolumena, 3. zenbakia, Madril: Justicia Ministeritza, 1972; 735-782 orr.
 - *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales. Compilación de Vizcaya y Alava*, XXVI tomoa, Madril: Edersa, 1978.
 - *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales. Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco*, XXVI tomoa, Madril: Edersa, 1997.
- DE LA CAMARA ALVAREZ, Manuel; DE LA ESPERANZA Y MARTINEZ-RADIO, Antonio. *Compendio de Derecho sucesorio*, 2. edizioa, Madril: La Ley-actualidad, 1999.
- HERRADA ROMERO, Rafael Ignacio. “Algunas consideraciones sobre el plazo ex artículo 831 del Código Civil”. In: *Revista de Derecho Privado*, 84. zenbakia, Madril: Justicia Ministeritza, 2000-II, 838-855 orr.
- LATORRE MARTINEZ DE BAROJA, Emilio. “De la fiducia sucesoria”. In: *Manual de Derecho sucesorio aragonés*, José Luis MERINO HERNANDEZek zuzendua, Zaragoza: Sonlibros, 2006; 369-459 orr.
- LOPEZ BELTRAN DE HEREDIA, Carmen. “El artículo 831 del Código Civil”. In: *Anuario de Derecho civil*, 58. tomoa, 3. zenbakia, Madril: Justicia Ministeritza, 2005; 1115-1152 orr.
- LOPEZ DEL POZO, Pedro. “La sucesión hereditaria en Ibiza y Formentera”. In: *Derechos Civiles de España*, Rodrigo BERCOVITZ, Julián MARTINEZ SIMANCASEk zuzendua, II. bolumena, Nafarroa: Aranzadi, 2006; 4961-4974 orr.
- MERINO HERNANDEZ, José Luis. *La fiducia sucesoria en Aragón*, Zaragoza: El justicia de Aragón, 1994.
- NAVAJAS LAPORTE, Álvaro. *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, Donostia: Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, 1975.
- OSSORIO SERRANO, Juan Manuel. “Comentarios a los artículos 670 y 671”. In: *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, IX. tomoa, 1-A bolumena, Artículos 657-693 del Código Civil, Manuel ALBADALEJOK zuzendua, Madril: Edersa, 1990; 113-171 orr.
- PEREZ ALVAREZ, Miguel Angel. “La sucesión testada”. In: *Manual de Derecho civil gallego*, José Manuel LETE DEL RIOk zuzendua, Madril: Colex, 1999; 223-233 orr.
- PEREZ MAYNAR, David. “La institución de heredero por fiduciario”. In: *Comentarios al Código de Sucesiones de Cataluña, Ley 40/1991 de 30 de diciembre*, Lluís JOU I MIRABENTek zuzendua, I tomoa, Bartzelona: Bosch, 2004; 559-569 orr.
- PUIG FERRIOL, Luis. “Comentarios a los artículos 109 a 116”. In: *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales, Artículos 97 a 121 de la Compilación de Cataluña*, Manuel ALBALADEJOK zuzendua, XXVIII tomoa, 1. bolumena, Madril: Edersa, 1982; 178-282 orr.
- PUIG PERRIOL, Luis; ROCA TRIAS, Encarna. *Instituciones de Dret civil de Catalunya, Dret de successions*. III. bolumena, Balentzia: Tirant lo Blanch, 2004.
- RIVAS MARTINEZ, Juan Jose. *Derecho de sucesiones. Común y foral*, I. tomoa, 3. edizioa, Madril: Dykinson, 2005.
- VALLET DE GOYTISOLO, Juan. *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, Artículos 806-857 del Código Civil, Manuel ALBADALEJOK zuzendua, XI. tomoa, Madril: Edersa, 1982.